# «Obabakoak», Atxaga eta Bilbo elkarrekiko zorrak kitatzen

**«Obabakoak» liburuaren 25. urteurrena dela eta, Bilbo Zaharra euskaltegiak ekitaldi bereziz osatutako lau eguneko egitarau oparoa prestatu du. Euskaltegiko ikasleak omentzea eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzea helburutzat dituen Klasikoen Irakurketa jarraitua Bernardo Atxagaren lanari eskainiko diote. Ekainaren 20rako jarri dute hitzordua, Arriaga antzokian.**

Alvaro HILARIO | BILBO

Abian daude, jada, Bilbo Zaharra euskaltegiak Bernardo Atxagaren "Obabakoak" (Erein) liburuaren 25. urteurrena ospatzeko prestatutako ekitaldiak, Arriaga antzokian zein horren parean ipinitako karpan gauzatuko direnak.

Horien artean nabarmentzekoa da aurten seigarren ediziora heldu den Klasikoen Irakurketa jarraitua, "Obabakoak" bera izango baita 400 pertsonak irakurriko duten literatur lana. Ekainaren 20an, 08.00etatik 20.00etara, izango da. Helburu bikoitza du irakurketa honek: «euskaltegiko ikasleek ikasturtean egindako ahalegina aintzat hartu» eta «irakurtzeko zaletasuna bultzatzea».

Arriaga antzokia bera izan zen antolatzaileek prestatutako egitaraua aurkezteko haututako lekua. Bilbo Zaharra euskaltegiko ordezkari Pedro Alberdik azaldu zuen liburuak antzokiarekin dituen lotura bi: batetik, bertan burutuko dute irakurketa 400 pertsonak; bestetik, Arriaga dugu Ereinek kaleratutako lehenengo edizioaren azaleko irudia.

Hirugarrena Atxagak berak aurkeztu zuen: antzokiko kafetegian elkartzen ziren –elkarri testuak irakurtzeko edota liburuak lagatzeko– garai haietan «idazle izan nahi» zuten haiek.

### Bigarren jaioterria

Atxaga eta Alberdi ez ezik, Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kiroleko zinegotzi Sabin Anuzita eta Euskadiko Kutxako ordezkari Pello Ugalde ere bertan izan ziren: «Tamaina honetako ekitaldia antolatzeko Bilbo Zaharra bezain ezinbestekoak diren babesleak direlako», esan zuen Alberdik. Batak zein besteak zoriondu nahi izan zuten Atxaga; horrela, idazlearentzat Bilbo bigarren sorlekua dela gogoraziz, bera omentzeko eta «Bilbok berarekin duen zorra» kitatzeko aukera paregabea dela aitortu zuen Anuzitak.

Horien segidan, Bernardo Atxaga mintzatu zen. Bere jaioterria eta literaturarekin aurreneko kontaktua izan zuen tokia Asteasu bada ere, «Bilbon eta etxe honetan idazle bihurtu» zela esan zuen; «eskola txiki moduko bat genuen Arriagako kafetegia», gehitu zuen, garai haietan erreferentziatzat duen Gabriel Arestik eta euskaldun berriek bultzatutako mugimendua zutela beren lana garatzeko «zorua».

Aro berrien abiaduraz "Obabakoak" klasiko bihurtu arren, jardunean dabilela esan zuen Atxagak. Ezberdina da, baina, gaur egun eta hiritar moduan duen jarrera: «Lehen baino hobeto gaude. Hori bai, esan beharreko guztiak esanda ditut. Alde honetatik, ez naiz oso hiritar txeratsua. Ez dut manifestu gehiagorik sinatzen, ezerezean geratu dira. Dena dela, fenomeno antidemokratikoen (Garoña berriz irekitzea, esaterako) aurkako jarrerari eusten diot oraindik».

Bestalde, atzo, 19.00etan, zabaldu zuten Arriaga plazan bertan lau eguneko egitarauko ekitaldiak hartuko dituen karpa.

10.15ean hasiko da gaurko lehenengo ekitaldia: Bego Alabazan ipuin kontalariak 7 urtetik gorakoei "Arritxaga ipuinak" ikuskizuna eskainiko die (eta geroago, 17.00etan, saioa errepikatuko du).

### Edizio bereziak

Bernardo Atxagaren lanak kaleratzen dituzten Erein eta Alfaguara argitaletxeek, berriz, urteurrena gogorazteko "Obabakoak" liburuaren edizio berriak aurkeztuko dituzte, 12.00etan, egilea bertan dela.

Eguna bukatzeko, Ibon Sarasolak eta Inazio Mujikak parte hartuko dute, 19.00etan, Forumean, karpan bertan.

Osteguneko ekitaldiaren garrantzia nabarmentzeko asmoz, Zumeta dugu aurtengo irakurketa jarraituaren afixaren egilea.

Ugalde, Atxaga, Alberdi eta Anuzita, irakurketaren afixari heltzen. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

ATXAGA, HIRITARRA

**«Ez dut manifestu gehiagorik sinatzen, ezerezean geratu dira. Dena dela, fenomeno antidemokratikoen (Garoña berriz irekitzea, esaterako) aurkako jarrerari eusten diot oraindik ere».**

## «OBABAKOAK», UN LIBRO UNIVERSAL

Fue la semana pasada cuando se cumplieron 25 años de la primera edición de "Obabakoak" a cargo de la editorial Erein. La obra nos presenta un viaje a la localidad de Obaba para asistir a una reunión que tiene como objetivo narrar historias; viaje que contiene los 26 relatos independientes que componen el libro.

Este trabajo universal en cuanto a temas y a tradición literaria (no en vano es situado en el selecto grupo de obras como "Decameron" de Giovanni Boccaccio, "Los cuentos de Canterbury" de Geoffrey Chaucer, o "Las mil y una noches" –Abu abd-Allah Muhammed el-Gahshigar fue el compilador–) es también el más conocido de los libros de Bernardo Atxaga y, probablemente, de la literatura en euskara, ya que está traducido a 27 idiomas.

Hoy, a las 12.00, en la carpa instalada junto al teatro Arriaga, las editoriales Erein y Alfaguara presentarán las nuevas ediciones preparadas con ocasión del aniversario. Ediciones con novedades y otros materiales relacionados.

Atxaga señaló ayer cómo la última vez que leyó el libro fue con motivo de la película que Montxo Armendariz realizó basándose en el mismo –"Obaba" (2006)– y que dio al texto «un inesperado empujón». El escritor dijo también sentirse feliz ya que, transcurridos 25 años, el libro sigue leyéndose.

La lectura de clásicos de nuestra literatura que por sexto año consecutivo organiza el euskaltegi Bilbo Zaharra es, no solo prueba de la vigencia de "Obabakoak", es también una oportunidad para que Bilbo –en palabras del concejal de Euskara, Juventud y Deportes, Sabin Anuzita– salde la deuda contraída con Atxaga, quien siempre ha tomado esta ciudad como su segundo lugar de nacimiento, el lugar donde se hizo escritor. A.H.